

«Itsasoan barrukoa ateratzen da, ez da kanpokoa sartzen»

Ez dakigu zer duen Getariako portuak, baina badu zerbait belak haizetara zabaltzeko gogoia ematen duena. Izan omen zen munduari bira eman zion bat. Lau hauek mundua ikusi nahi dute beren inguruan biraka.

UXUE ALBERDI

Silver Cloud ez dago Getariako portuan amarratuta. Non dago?

Amaia: Venezuelan dago gure zain, hala espero dugu, behintzat. Udan Getariara itzultzen gara, baina irailaren 3an abiatuko gara berriro.

Belaontzian bidaiatzeko ideia, noiz hasi zen ernezen zuen buruetan?

A: Ez, guretan ez, Emilioren buruan hasi zen.

Emilio: Aspaldi... Niri beti gustatu izan zait bidaiatzea. Julio Villar eta itsasoko liburuak irakurtzen nituen, eta aukera hori ikusten hasi nintzen, posible zela belaontzian bidaiatzea. Eta beti neukan buruan bueltaka.

A: Amets bat zen hasieran, bere ametsa. Nik ez nuen sinesten! Pixkanaka hasi zen: belaontzia gidatzen ikasten hasi ginen, barku txiki bat erosi genuen lau lagunaren artean... Baina Emiliok oso argi zeukan norantz zihoan!

E: Hemengo kostan zeharkaldi batzuk egin genituen eta esan nien: erosiko al dugu ontzi handia?

A: Hemen, normalean, belaontziak ordu batzuetarako baino ez dira irteten itsasora, edo asteburu baterako, asko jota. Baina bidaiak luzeak egiteko erosotasun pixka bat beharrezkoa da. Eta ia 12 metroko barkua erosi genuen. Sos guztiak hortxe utzi genituen!

Silver Cloud. Zilar Lainoa.

E: Horixe. Eta zeharkaldi luzeagoak egiten hasi ginen: Galiziara, Frantziara...

A: Eta erabakia hartzeko unea iritsi zen, hemen barku bat edukitzea oso garestia baita. Baina hori gertatu artean 10 urte joan ziren!

Eta aingura jasotzera zindoaztenean... haurdun gelditu zinen.

A: Hodei bidean zetorrela jakin genuenean ez ginen ausartu bidaiari ekiten, baina Getarian ez gelditzea erabaki genuen, atzera egingo genuen beldurrez.

Noiz irten zineten Getariatik?

A: 2002an abiatu ginen eta, lehorrez, Mallorkara joan ginen. Han bizi izan ginen bi urtez. Barkua eramanez genuen, baina etxe batean bizi ginen. Hodeik bi urte zituela, zeharkaldia egin genuen Mallorkatik Kanarietara, eta beste urtebete egin genuen han. Azkenean, 2007ko urtariraren 8an irten ginen Las Palmasetik Brasilerara. Atlantikoa zeharkatu genuen. Sei hilabete egin genituen Brasilen.

Erizaintzako nozio batzuk ere zeureganatu zenituen, ezta?

A: Bai. Ametsa oso polita zen, baina gerturatu ahala kezka sortu zizkigun: bi umerekin joateko asmoa geneukan. Haurren hezkuntza eta osasuna ziren gure kezka nagusiak. Ni irakaslea naiz, eta horrek nolabaiteko segurtasuna

Nortasun agiria

Amaiak, Emiliok, Izarrek eta Hodeik familia osatzen dute, eta duela urte eta erditik Silver Cloud belaontzian bidaiatzen ari dira. Atlantikoa zeharkatu dute, eta Brasilen, Natalen, frantziar Guyanan, Trinidaden, Tobagon eta Venezuelan izan dira. Amaia Agirre 42 urteko bakiotarra da, ingeles irakaslea, lanbidez. Emilio de la Hoz, berriz, getariarra da eta 48 urte ditu. Arrantzale, lorezain, *parillero* eta yateetako patroiaritu izan da. Izarrek bederatzi urte ditu, eta Hodeik, bost. Silver Cloud-eko tripulazioak badu beste kide bat ere: Sua, ontziko itsas-zakurra.

De la Hoz-Agirre familia

DANI BLANCO

Getariako portuan.



De la Hoz-Agirre familia

ematen zidan. Baina osasunari zegokionez... Hasieran, lehen laguntzako ikastaroa egiteko asmoa geneukan, ni amatasun baimenarekin nengoan Mallorkan eta izena ematea bururatu zitzaidan. Ikaragarri gustatu zitzaidan, baina aitaren osasun arazoak medio, ez nuen bukatu. Dena den, oinarritzko nozioak ikasi nituen: zauriak ixten, sendatzen eta josten; injekzioak jartzen; hezur-haustura baten aurrean nola jokatu; ahoz ahokoa egiten... Eta botika-kutxa osatzen, halako bidaia batera zer eta nola eraman behar den.



Haurrak Urrutiko Hezkuntzan daude matrikulatuta, horixe baita modu ofizial bakarra.

Gehienez, zenbat denbora egin duzue lehorra zapaldu gabe?

E: Atlantikoa zeharkatzean: Kanarietatik Cabo Verdera zazpi egun izan ziren, eta Cavo Verdetik Brasilera, hamabost.

Zer jakin behar da Atlantikoa belaontzi batean zeharkatzeko?

E: Gutxieneko jakintza beharrezkoa da, baina garrantzitsuagoa da gogoia. Sekula ez duzu jakin beharreko guztia jakingo... Beraz, aurrera!

A: Nik ez daukat titulaziorik. Nabigatuz ikasi dut, baina ez dut paper bakar bat ere. Egia da Emilio hor baldin badago berari uzten diodala ardura hori, baina uste dut barkua eramateko gai izango nintzatekeela. Bi gauza mota ikasi behar dira: alde batetik, belaontzia ez da motorrezko garraibidea, eta haizea maneiatzen, nondik norakoak ulertzen... ikasi behar da. Bestetik, bidaia luzeak egiteko kartak interpretatzen ere ikasi behar da.

Eta haurrek nola hartu zuten erabakia?

A: Oso txikiak ziren, eta umeek gurasoekin egon nahi dute. Izar gehiago konturatzen zen, eta hasieran asko zorabiatzen zen ontzian. Zorabioa beldurra zen. Pasa zituen urduritasun uneak, baina orain galdetzen badiezu... barkua nahi dute!

E: Izarrek esaten zidan: "Getariara itzultzen garenean barkua niri saldu. Baina merke, e!".

Izar: Hasieran beldur pixka bat ematen zidan, baina gero ohitu egin nintzen.

Haurrak azkar ohitzen al dira egoera berrietara?

A: ez dute iragana ahazten. Guk lotura handiak dauzkagu gure jendearekin, etxeokoen... baina

ikusten dute itzultzen garela. Oso etxeokoiak gara, bai barkuan eta bai barkutik kanpo. Familiarteko bizitza egiten dugu, asko egoten gara elkarrekin.

Barkuan, zein da bakoitzaren egitekoa?

A: Kapitain jauna, Emilio. Behar-beharrezkoa da kapitainaren figura. Etxean lanak beste era batera partitu daitezke, baina ontzian beharrezkoa da kapitaina. Niri konfiantza ematen dit Emiliok, bera urduri ikusten badut... akabo!

Hegazkinean azafata urduri ikusten duzunean bezala...

A: Horixe. Bera ondo egonez gero edozein lekutara joango nintzateke. Emilio ontziaren xehetasun teknikoekin arduratzen da. Eta barkuko andrea ni naiz: nik egiten ditut otorduak, ni naiz ama, irakaslea, psikologoa, erizaina... Etxean bezala.

Bitakoraren koadernorik egiten al duzue?

A: Bai. Komeni da edukitzea, ainguratzeko puntu onak non dauden jakiteko, nabigaziorako gorabeherak... Ez dakizu inoiz hortik itzuli beharko duzun.

E: neuk idazten dut, egunean egunekoa.

I: Guk ez dugu idazten, baina ikusitako gauzen marrazkiak egiten ditugu: izurdeak, baleak ura botatzen, orkak, esparroiak, marrazoen hegala, itsas dortokak, kapibarak...

Beti egoten al da norbait itzarrik?

A: Bai, ez daukagu radarririk eta 24 ordutan egon behar dugu adi.

E: Gauetan txandak egiten ditugu, bi ordu eta erdi inguruko

zaintzak.

Oso jende gutxi bidaiatzen du familian. Nolako esperientzia da hori?

A: Aberasgarria bezain zaila. Nire kasuan, ama eta irakasle izatea oso zaila da, bidaiaren alderdirik zailena. Baina denok ari gara ikasten, denok ikasten dugu egunero elkarrengana moldatzen. Laurok hazi gara bidaia honetan.

Haserretuz gero ezin duzue barkutik salto egin.

E: Beste txip batekin egoten gara ontzian, umeak ez dira lehorrean bezala egoten. Barkuan sartu orduko giroa aldatu egiten da, eta lauroi eragiten digu. Umeek badakite itsasoan daudela, eta magikoa da, beste era batera jokatzeko dute.

A: Bai, umeein zailagoa da lehorrean. Barkuan badakigu ez dagoela txorakerietarako lekurik, ez leku fisikorik eta ez inolakorik. Gehiago haserretzen gara lehorrean.

Nola moldatzen zarete haurren hezkuntzarekin?

A: Urrutiko Hezkuntzan daude matrikulatuta, horixe baita modu ofizial bakarra. Ikasgai instrumentalak egunero lantzen ditugu. Itsasoan gaudenean ezin izaten dugu eskolarik egin, baina lehorrean asteak zazpi egun izaten ditu, eta astelehenetik igandera izaten da eskola. Halere, metodoa ez da batere egokia, eta denbora asko galtzen da haurrak behartzen. Gainera, ministerioak oso zehatzak eta zorrotzak dira eta testuliburuak haiek agindu bezala landu ezean, ez du irakatsi beharreko guztia irakasteko astirik ematen. Bi hilabetetik behin egindako ariketak bidali behar izaten ditugu eta ikasturte amaieran azterketa egin behar izaten dute, atzerrian egonez gero, hango enbaxadan, eta hona itzuliz gero, Gobernu Zibilean.

E: Izarrek 5 orduko azterketa egin zuen iaz, zortzi urterekin.

Ez dago euskaraz ikasteko modurik?

A: Ez. Guk haurrak Getariako eskolan matrikulatu nahi genituzke. Bertara joan ez arren, haien materialarekin eta haiekin batera lan egiteko. Zuzendaritza eta irakasleak ere ados daude, baina traba legal bat dago: haurrek ezinbestean joan behar dute eskolara. Ofizialki egin genuen eskaera Eusko Jaurlaritzan, baina legea aldatu beharko litzatekeela diote.

Eta zer aukera eman zizueten?

A: Ez matrikulatzea, ikastolarekin lan egitea, baina matrikulatu gabe. Baina guk hori legalizatzea nahi genuke. Jende askorentzako izango litzateke baliagarria. Enpresen deslokalizazioarekin jende pila batek joan behar du kanpora, eta jende gaztea izaten da, familia izan dezakeena. 5 edo 6 urterako daude kanpoan, baina gero itzuli egingo dira! Aukera hori izango balute, itzulera askoz errazagoa litzateke.

Eta irakasletzat ama izatea, erraza al da?

I: Borroka pixka bat egiten dugu, baina ondo moldatzen gara. Gainera, betiko ikasgaiez gain beste gauza batzuk ere ikasten ditugu: Brasilen kapoeira ikasi nuen, eta baita portugesez hitz egiten ere, eta oraindik ez zait ahaztu.

Zerk egiten du kili-kili handiagoa, abiatzeak ala iristeak?

Denak: Iristeak!! Dudarik gabe!!

I: Beno, niri irtetea ere gustatzen zait, itsasoa asko gustatzen zait, eta baita arrantza egitea ere.

Orain hobeto ulertzen duzue "lurra begi bistan!!" oihua?

Eguna belaontzian

Amaia: "Eguna argitzen denean jaikitzen gara eta lehenbiziko gauza umeei krema ematea eta txapela janzea izaten da, barkuan oso itzal gutxi baitago. Hori da errituala: jaiki, krema, txapela eta gosalduta. Eta gero... harrigarria da nola pasatzen den denbora: izurdeak etortzen direla, argazkiak ateratzen dituzula, aparejua botatzen duzula... Segituan iristen da bazkaria prestatzeko ordua, eta hori asko zaintzen dut, itsasoan oso erraza baita gutxi jatea eta pisua galtzea. Bazkaldu, umeei ipuinen bat irakurri, jolastu... Jostailu pila bat eramaten dute atzean. Igo, jaitsi, Suarekin jolastu... Arratsalde partean, afalordua hurbildu ahala, irratitik hitz egiten dugu. Irrati amateur batzuek ematen digute eguraldiaren iragarpenaren berri, haiek esaten digute nondik joatea komeni zaigun".



III. etxepare beka Haurrentzako albumak sortzeko

Saria: 6.000 euro
Argitaratzaileak:
Pamiela eta Faktoria K de libros
Originalak aurkezteko epemuga:
2008ko azaroaren 28an,
Burlatako Udaletxean (Nafarroa)

oinarriak: www.baranain.com

antolatzaileak:

Auritz, Erroibar eta Laznideko Udalak;
Barañaingo Udala/Ayuntamiento de Barañain;
Bazango Udala; Berriozarko Udala; Bortzirietako
Euskara Mankomunitatea; Burlatako Udala;
Garesko Udala; Nafarroako Iparraldeko Euskara
Mankomunitatea; Lizarrako Udala; Maierrekako
Mankomunitatea; Orkoien, Oltzakiko Zenden,
Etxauri, Ollarua eta Bidaurretako Udalak;
Sakanako Mankomunitatea; Uhartea eta
Esteribariko Zerbitzu Mankomunitatea; Zaratzen
eta Erronkariko Batzorde Nagusiak; Zizur
Nagusiako Udalaren Kultura Patronatua.

laguntzaileak:

Nafarroako
Gobernua



AZKEN HITZA

Barealdiak

"Atlantikoan ekaitzak baino okerragoak dira barealdiak. Zero paralelora iritsi ahala tropiko arteko konbergentzia-gunea dago. Gune hori ez da finkoa, mugitu egiten da, eta bertan ez dago haize izpirik, batere ez. Gune horretan sartzea ekaitza baino okerragoa izan daiteke".

I: Bai, hori!!

E: Brasilerira iritsi baino lehenago uharte txiki bat dago eta hara iritsi ginenean, 15 egunean itsasoa bakarrik ikusi ostean, ura eta ura baino ez... lurrari musu eman genion aita santuak bezala!

I: Atlantikoa zeharkatu genuenean barkuan ura bakarrik edaten genuen, eta iritsi ginenean aitak eta amak bosna zerbeza eta guk bina Coca-Cola edan genituen! Urarekin aspertuta geunden.

Nola hornitzen duzue belaontzia? Zer eramaten duzue?

I: Gehienbat janaria.

E: eta ura, ura oso inportantea da. Zeharkaldi luzeetan ura da oinarritzkoena. Barkuak bi kamaina dauzka, bat aurrean eta bestea atzean, eta atzeko kamaina jostailuz kargatuta eramaten dugu.

Zer sentitzen da barkua amarratzean?

A: Poza. Polita da nabigatzea, baina oso desberdina. Ordu pila bat dauzkazu zeure buruarekin egoteko, eta erabili egiten dituzu, burua martxan egoten da. Gauetako txandetan ez daukagu argirik, ezin dugu irakurri: egon egin behar da. Norbera, itsasoa, haizea, barkua eta denak lo.

E: Lehorrean askoz entretenimendu eta estimulu gehiago daude: irakurri egiten duzu, jendearekin hitz egin, telebista ikusi... Kanpotik askoz gauza gehiago hartzen dira, informazio asko hartzen da ingurutik, baina itsasoan ez. Itsasoan barrukoa ateratzen da, ez da kanpokoa sartzen.

Natura irakurtzen ikasi duzue?

A: Emilio lehendik itsasoan asko ibilitakoa da eta, agian, berarentzako ez da hain nabarmena izan, baina niretzako bai. Orain ekaitzak usaindu egiten ditut, euri usaina sumatzen dut, eta badakit badatorrela.

Garestia al da horrela bidaiatzea?

A: Bidaiatzea bera ez. Nautika da garestia, aparatuak, itsasontzia... Baina nabigatzen gaude-

nean ez dugu ezer gastatzen; etxea eta garraioa geurekin daramatzagu eta egon garen lekuetan arropa askorik ez da behar.

Eta ontzia portuan izateagatik ez al da garesti ordaintzen?

A: Lekuaren arabera. Orain barkua Venezuelan daukagu, eta segurtasun falta ikaragarria dago; han ezin da edozein lekutan aingura bota. Marinetan utzi behar da, baina hala ere, hemen baino askoz ere merkeagoa da. Brasilen ez, Brasilen badaude lekuak aingura bota eta ezer ordaindu gabe egon zaitezkeenak, gu sei hilabetean hala egon ginen. Zingira batean bertako arrantzaleekin, beraiek bezala, sosik pagatu gabe eta oso-oso ondo.

Piratarik okerrenak uniformedunak direla irakurri dizuet.

A: Dudarik gabe. Mugak oso itsusi ipini dira. Eta guk pribilegioak dauzkagu europarrak garelako, ez baita gauza bera pasaporte bat edo bestea erakustea. Itsaso zabalean zaudenean badirudi aske zarela eta ez dagoela legerik, baina badago. Oso kontrolatuta dago.

Lehenago bidaiariak lur eta aberastasun berrien bila bidaiatzen zuten. Zuek zeren bila zabilzate?

A: Aberastasun bila gu ere, baina ez dugu dirutan neurtzen.

Noiz arte jarraituko duzue bila?

E: Epea dauka, beste pare bat urte edo. Izarrek Bigarren Hezkuntza eskolan egitea nahi dugu. Bere lagunak, bere koadrila, bere lekua, bere erreferentzia hau izan dadin: Getaria.

A: Gure asmoa sekula ez da betiko bidaiatzen jarraitzea. Badakigu itzuli egingo garela, eta adin batetik aurrera, haurrei gehiago kostako zaie gela itxi batean sartzea beste 24 lagunekin batera. Gu kanpoan bizi gara, naturarekin harremanean... Dena den, bidaiak bere bideak jartzen ditu, eta auskalo. ■